



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2024KO MAIATZAREN 29AN BASABURUKO UDALAK **EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2024ko Maiatzaren 29an, arratsaldeko 18:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Belouqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, M^a Mar Ansorena, Micaela Elizalde, Iker Isiegas eta Javier Auza.

BERTARATU EZ DIRENAK: Alaia Etayo.

Bertaratu da baita ere Iñaki Lopez, Berueteko kontzejuko alkatea.

18:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDAA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Apirilaren 24ko ohiko batzarreko akta eta maiatzaren 13ko ez ohiko aktak deialdiarekin batera bidali zirenak, bildutakoek aho batez onartzen dituzte biak.

2.- Alkate ebazpenak

-2024/48 alkate ebazpena, obra baimena onartuz Telefonika enpresari Berueteko bidean 4 zutoi aldatzeko.

-2024/49 alkate ebazpena, obra baimena onartuz Telefonika enpresari Berueteko bidean 5 zutoi eta 2 riostra aldatzeko.

- 2024/50 alkate ebazpena Ana Luistivy-ri aparkatzeko ezinduen txartela onartuz.

- 2024/51 alkate ebazpena Juan Jose Azpirozi 2 asto izateko iharduera ez kaltegarria onartuz.
- 2024/52 alkate ebazpena obra baimena emanaz Telefonika enpresari Berueteko 455. Lursailean 2 zutoi aldatzeko.
- 2024/53 alkate ebazpena obra baimena emana Telefonikari Erbitin 3 zutoi aldatzeko.
- 2024/54 alkate ebazpena Damaris Usedi, Olakoko 8. Poligonoko 196. Lursailean dagoen etxearen beheko solairuko leihoak aldatu eta barruko obrak egiteko .
- 2024/55 alkate ebazpena Felix Beunzari Ihabengo 3. Poligonoko 14. Lursailean agoen eraikinaren beheko solairua zolatzeko obra baimena onartuz.
- 2024/56 alkate ebazpena Trafikoko Buruzagitzari ofiziozko behin betiko baja eskatzea Ivo Irevv-en izenean dauuden ibilgailuei, Ibilgailuaren Azterketa Teknikorik (IAT) eta aseguratik ez izateagatik hamar urte baino gehiagoz, 35.5 artikuluan ezarritakoaren arabera. Behin betiko bajak. (2822/1998 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duena).
- 2024/57 alkate ebazpena Pello Osinagari Natividad kaleko 1 zenbakiko 1. ezkerrean dagoen etxebizitzako leihoak aldatzeko obra baimena emanaz.
- 2024/58 alkate ebazpena Martin Osinagari Natividad kaleko 1 zenbakiko 1. eskuin dagoen etxebizitzako leihoak obra baimena.
- 2024/59 alkate ebazpena Baimena emanaz Aralar Musika Eskolari, eskolako patioa edo Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko. Ekainaren 12an egin behar duten emanaldia burutzeko arratsaldeko 15:00etatik aurrera.
- 2024/60 alkate ebazpena Itsasoko 4. Poligonoko 296,407,416,301 eta 297. Lursailetan 30 ardi hazteko jarduera abeltzaintzako ustiategi estentsibo eta, beraz, KALTEGABE deklaratzeko, ekainaren 23ko 148/2003 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Enrique Paesa Senosiaini jarduera kaltegarberako lizentzia ematea.
- 2024/61 alkate ebazpena AMA Architectural Office-k Sasturain etxearen beheko solairua eguneko zentro gisa egokitze proiektua idazteko aurkeztutako proposamena onartuz, 13.100 euroko aurrekontuarekin.
- 2024/62 alkate ebazpena Julen Beunzari eskuordetzea 2024/2 zenbakidun ezkontza zibila egiteko ahalmena izan dezan.
- 2024/63 alkate ebazpena onartuz Martin Jose Azpiroz Miqueorekin sinatutako kontratuaren luzapena, maiatzaren 3ko bukaera data duena eta hortaz onartzea honen luzapena maiatzaren 6 a arte.
- 2024/64 alkate ebazpena Ihabengo 3. Poligonoko 293. lursailean 5 ardi hazteko jarduera abeltzaintzako ustiategi estentsibo eta, beraz, KALTEGABE deklaratzeko, ekainaren 23ko 148/2003 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Cristina Beunza Munarrizi jarduera kaltegarberako lizentzia emanaz.

-2024/65 alkate ebazpena Baimena emanaz Marta Irurzuni Aizarotzko Luzia Goñi kultur etxeko erabilera anitzetako gela erabiltzeko, Aizarotzko Herriko Plaza 1 helbideko jabeen elkargoaren bilera burutzeko, Maiatzaren 19an, 12etatik aurrera.

-2024/66 alkate ebazpena onartuz, Jose Joaquín Miqueo Arrarasi, , behin behineko aparkatzeko elbarriendako txartela ematea.

-2024/67 alkate ebazpena lehen erabilera onartuz Natalia Osinaga Ballanori Jaunsaratsko 5.poligonoko 10. lursailean eraberritutako etxebizitzarentzat.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain arte egindako alkate ebazpenak,

3.- 2024. Urteko lan egutegia.

Alkateak azaltzen du urtero bezala lan egutegia onartu behar dela, udaleko langileen proposamena da tokiko pesta bezala abuztuaren 16a jartzea eta jai eguna hartzeko aukera zubi izaerarekin, uztailaren 26a eta abenduaren 2a. Hiru egun horietan udala itxita egongo litzateke.

Hortaz, hauek izango lirateke Basaburuko udaleko 2024. urtean izanen diren jaiegunak:

–Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna.

–Urtarrilaren 6a: Errege eguna.

–Martxoaren 28a: Ostegun Santua.

–Martxoaren 29a: Ostiral Santua.

–Apirilaren 1a: Pazko astelehena.

–Maiatzaren 1a: Langileen eguna.

–Uztailaren 25a: Santiago eguna.

–Uztailaren 26an: Zubia.

–Abuztuaren 15a: Ama Birjinaren Jasokundea.

–Abuztuaren 16a.Tokiko pesta.

–Urriaren 12a: Espainiako Jai Nazionala.

–Azaroaren 1a: Santu Guztien Eguna.

–Abenduaren 2a: Zubia.

–Abenduaren 3a: San Frantzisko Xabierkoa.

–Abenduaren 6a: Konstituzioaren eguna.

–Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

Orobat, baliogabeak izanen dira, 2024. urtean epeak kontatzeari dagokionez, larunbata eta igande guztiak, eta udal bulegoetako jaiegunak.

Aipatutako tokiko festaz gain, langileek 3 egun izango dituzte norberaren zereginetarako orduka hartu ahal direnak eta beste 4 egun, gehiegizko lan ordukin osatutako poltsatik.

Basaburuko Udaleko administrazioaren lanaldiaren urteko egiazko lanordu kopurua 1.592 izanen da, eta honela banatuko da:

1. Astelehenetik ostiralera bitarteko eguneroko lanaldia, orokorrean, 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da.

2. Artikulu honetako aurreko ataletan ezarritako lanaldiaren banaketa ez zaie aplikatuko, zerbitzuaren beharrak direla eta, lanaldi berezia duten enplegatuei,

Basaburuko Udaleko erregistro orokorra 9:00etatik 13:30etara egonen da irekita, jendea hartzeko, astelehenetik ostiralera.

Organo administratibo eskudunek erregelamenduz ezarritako oporrak emango dituzte, gisa honetan: oporraldi luze bat edo bi eta egun solteak, urtean zehar hartzeko, zerbitzuko beharrek hala uzten dutenean.

Aurreko ataletan aipatutako lanaldiaren banaketa eta oporrak ez zaie aplikatuko, zerbitzuko beharrak direla-eta lanaldi berezi bat dutenei, ezta haur eskolara atxikitako langileei ere, horiek beren lan egutegia izanen baitute; hala ere, orokorrean ezarrita dagoen urteko lanordu kopurua errespetatu beharko dute.

Nolanahi den, urteko lanaldiaren iraupena baldintzatuko du 2024rako orokorrean Nafarroako Administrazio Publikoetarako behin betiko ezartzen denak. Horretarako, aldaketaren bat izanez gero, behar diren egokitzapenak egingo dira.

Bildutakoek aho batez onartzen dute 2024ko Basaburuko lan egutegia eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute.

4.- Igoako 9. Poligonoko 287. Lursailerako udal planaren egiturazko aldaketa. Bigarren behin behineko onespena.

Alkateak azaltzen du, udal planaren egiturazko aldaketa honen bidez sustatzaileak Igoako 9. Poligonoko 287. Lursailari erabilera aldatzen duela eta hortaz hiri lurra izaera jartzen dio aipatutako lursailaren 1777 m²-ri.

Hasierako onespena 2020ko ekainaren 30ean burututako batzarrak eman zion, ondoren 202ko abenduaren 23an behin behinekoa ere eman zion Basaburuko udal batzarrak, 2017/1 Foru Legelilearen 71. Artikulua jarraituz.

Ondoren NGra bidali zen behin betikoz onartu izan dadin, eta orain arte hainbat zuzenketa egitea eskatu diote sustatzaileari, aldaketa hauek funtsean ez dute azalerarik ez egiturazko aldaketarik suposatzen aurkeztutako memorian, planoen edukietan eta koordinadetan bai zuzenketa egin dituela sustatzaileak, hortaz NGak berriro azken bidalketa egin aurretik, behin behineko onartzea eskatzen dio udalari dokumentua.

Gaia, maiatzaren 27ko hirigintzan aztertu da eta udal arkitektoak baieztatu txostena egin dio azken dokumentazioari eta hortaz bigarren behin behineko onespenerari, hortaz, bildutakoak 2017/1 Foru Legegilearen 71. artikuluari jarraikiz aho batez onartzen dute:

- Bigarren behin behineko onespenera ematea Amaia Lasarte Ezkurak sustatutako udal planaren egiturazko aldaketari, Igoako 287. Lursailaren 1777 m²-ren erabilera aldatuz landa lurretik hiri lurrera.

- Erabaki hau sustatzaileari jakinarazi eta Nafar Gobernura helarazi.

5.- Taxiaren erabilera arautzen duen ordenantzaren aldaketa. Hasierako onespenera

Alkateak azaltzen du taxia martxan dagoela jada eta udalen taxi tarifak Nafar Gobernuak foru agindu bidez onartzen ditu. Ulertzen da ez dela berdin Iruñerrian egiten den zerbitzua taxiak lanean daudelako beraiek finkatzen duten ordutegian eta Basaburuko taxiaren zerbitzua... etxean egonik deitzen diotenean lanera atera behar baitu, horregatik gutxieneko tarifa bat jartzea da alkatearen proposamena, eguneko 10 eurokoa eta gabeko tarifa 12 eurokoa.

Ordenantzaren aldaketak egitea proposatzen horretarako alkateak, alde batetik taxiaren gutxieneko tarifak finkatzeko, hasierako ordenantzan ez zirelako finkatu:

Tarifak hauek izango ziren:

Eguneko tarifa; gutxieneko kuota 10 eurokoa, kilometraia 0.70

Gabeko tarifa, gutxieneko kuota 12 eurokoa eta 0.875 kilometraia.

Gutxieneko tarifa 14 kilometro osatu arte izango litzateke.

Bildutakoek hortaz onartzen dute aho batez taxi erabilera arautzen duen ordenantzan aipatutako aldaketak txertatzea eta ordenantzari hasierako onespenera ematea eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.

Telefonika enpresari kexa adierazi, kablea kendu dutenean utzitako zaborrak kendu ez dituztelako.

Alkateak gogoratzen die bildutakoei, Abenduaren 21eko batzarrak onartu zuela Telefonika enpresari eskatzea 2 hilabeteko epean zaborrak kentzea. Ondoren ere

NUFK-en bidez Telefonika enpresari arduradun batekin kontaktatu zuen udalak eta hari ere eskaera bera bideratu, egun maiatzaren 29a izanik oraindik zaborrak ez dituzte kendu hortaz proposatzen du aurrera pauso bat ematea eta salaketa jartzea eta horretarako ere, Foruzaingoiari eta Ingurugiro Departamentuari txostenak egiteko eskatuko zaie.

Bildutakoek gaia eztabaidatzen dute azkenik hartzen dute erabakia hau da:

Telefonika enpresako arduradunekin kontaktuan jarri eta adierazi bi hilabeteko epean ez badute garbiketa egiten udalak salaketa jarriko duela eta gainera ere zaborrak kenduko dituela bere kabuz eta gastu hori beraiei pasako zaiela.

6.- Mozioak.

Palestinaren egoeraren inguruko mozioa irakurtzen da, ondoren transkribatzen dena:

“ Joan den maiatzaren 15ean, NAKBAren 76. urteurrena bete zen eta urtemuga horrek gogorarazten digu palestinar herriak hamarkadak daramatzala Israelen apartheid erregimenaren mende. Egoera are larriagoa da 2023ko urriaren 8tik Israelek Gazako zerrendaren eta Palestinako lurralde osoaren aurka egiten duen eraso militarren ondorioz.

Maiatzaren 24an Nazioarteko Justizia Gorteak ebatzi zuen Israelek Rafah-ren (Gazako hegoaldean) gaineko bere eraso militarra “berehala” geldiarazi behar zuela. Hegoafrikak Gorteari eskatu zion ebazpen hori larrialdi neurri gisa hartzea, Israelek Rafahen aurrera eramaten ari den jarduerak operazio genozida bat direla adieraziz eta palestinar herriaren biziraupena bera arriskuan jartzen dutela.

Nazioarteko Justizia Gorteak urtarilaren amaieran eskatu zion Israeli Gazan laguntza humanitarioa sartzen uzteko, eta berretsi zuen agindu hori martxoaren amaieran. Horrez gain Israeli eskatu zion Gazako gerran "genozidio-egintzak saihesteko bere esku dauden neurri guztiak" har zitzala, eta txosten bat aurkez zezala, auzitegiak emandako aginduak aplikatzeko hartutako neurri guztiekin, hilabeteko epean. Gaur da eguna oraindik eskaera hori ez dela gauzatu.

Hori guztia egin da Hegoafrikako gobernuak 2023ko abenduaren 29an Nazioarteko Justizia Gortearen aurrean irekitako prozesuaren esparruan, Israel 1948ko Genozidio Delitua Prebenitzeko eta Zigortzeko Konbentzioa urratzen ari zela argudiatuta, 2023ko urriaren 7tik aurrera abiatutako operazio militarrekin.

Operazio honen ondorioz, Israelek 36.000 pertsona baino gehiago hil eta 80.000 baino gehiago zauritu ditu, horietatik % 70 emakumeak eta haurrak. Gazako biztanle gehienak beren bizitokia nahitaez lekualdatzera behartuak izan dira. Hein handi batean Zerrendaren hegoaldera desplazatuak izan dira, Rafah-era. Lurralde horrek ez ditu lekualdatutako pertsonak artatzeko behar diren gutxieneko azpiegitura eta baliabideak.

Bitartean, laguntza humanitarioa dakarten ehunka kamioik, batez ere elikagaiak, Egipto eta Gaza arteko mugan blokeatuta jarraitzen dute, Israelen onespeneren zain. Egungo erantzun humanitario guztia, neurri handi batean, UNRWArekin ahalmenaren arabera da. Baina Nazio Batuen Agentzia kolapsoaren ertzean dago eta UNRWako 189 kideren heriotza baieztatu da.

Genozidioa salatzen duten protestak eta munduan zehar Palestinako herriari elkartasuna adierazten dioten adierazpenak ere aipagarriak dira. Euskal Herrian, herritarrek Israel Gazan egiten ari den genozidioa salatzeko eta berehalako su-etena eskatzeko mobilizazio asko gauzatu dituzte. Gernika-Palestina edo Yala Nafarroa plataformak erreferente bihurtu dira herri palestinarraren aldeko borrokan eta, beraz, Israel egiten ari den genozidioaren aurkako borrokan.

Bestalde, mundu osoan zabaltzen ari den ikasleen elkartasun-olatua Euskal Herrira ere iritsi da, eta dozenaka ikaslek Palestinarekiko elkartasun-ekimenak garatu dituzte, UPV/EHU edo NUPen kanpaldiak, batzarrak eta mobilizazioak eginez.

Horregatik guztiagatik, Basaburuko Udalak:

1. Israel Gazan egiten ari den genozidioa salatzen du, eta elkartasuna eta konpromisoa adierazten dio herri palestinarrari.
2. Israeli Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa betetzea eskatzen dio, baita NBEren ebazpenak eta Nazioarteko Justizia Gorteak emandako ebazpenak ere.
3. Israeli irmoki eskatzen dio korridore humanitarioak irekitzeko eta Gazan eta Zisjordanian sua berehala eta modu iraunkorrean eteteko.
4. Irlandak, Norvegiak eta Espainiako estatuak Palestina estatu gisa ofizialki aitortzeko ekimena babesten du, euskal gizarteak aspalditik eskubide hori aitortzen diola aintzat hartuta.
5. UNRWA Nazio Batuen Agentziari babesa ematen dio eta Palestinan egin behar duen ezinbesteko lana aitortzen du.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuei, Nafarroako Foru Erkidegoari, Estatuko Gobernuari eta nazioarteko gainerako eragileei eskatzen die Palestinarekin dauden lankidetzaproiektuekin jarraitzeko eta indartzeko, eta eremu horretan lan egiten duten erakundeei babesa emateko eskatzen die, hala nola UNRWari eta beste erakunde eta ekimen sozial batzuei.
7. Europar Batasunari eta, oro har, Nazioarteko Erkidegoari ahaleginak areagotzeko, bahitu eta preso guztiak askatzera eta herri palestinarrarentzat bake justu eta iraunkorra lortzera bideratutako kudeaketa diplomatikoak bultzatzeko eskatzen dio.
8. Herri palestinarrak estatu burujabe eta bideragarria izateko duen eskubidea berresten da
9. Bere babesa ematen die Gernika-Palestina eta Yala Nafarroa Palestina eta Palestina plataformei, eta Palestinan giza eskubideen eta bake justu eta iraunkorraren defentsan egiten ari den lan garrantzitsua babesten du, baita Israel herri palestinarraren aurka egiten ari den genozidioa salatzen ere.”

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

7. - Batzordeen informazioa.

Kultura Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Kultura batzordeko bileran lantzen ari dira urtero ekintza desberdinak dituen zikloa antolatzea eta herriz herri egingo direnak, musika, antzerkia eta beste ekintzak uztartuz.. Urtero aurreikusten dira 3 hitzaldi, 3 musika ekitaldi eta 3 umore saio burutzea.

Udan zinema programa egingo da lhabengo pasaderetan eta perseiden ikuskapena abuztuan.

Euskara Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa

Bizkarsoro dokumentala atzeratu da ekainaren arte

Bestetik Ega edo C1 ateratzeko ikastaroa egiteko eskaintza bideratuko zaio 16 eta 24. Urte arteko gazteentzat.

Ostalarien ikastaroa bukatu ondoren haiek jarraipena egiteko eskaera burutu dute eta euskaltegiekin harremanetan jarri dira taldea ateratzeko

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

BTT Basaburua burutu zen eta naiz eta 300 parte hartzailek izena eman, eguraldiagatik azkenean ez ziren guztiak etorri.

Bestetik ekainaren 8an sega txapelketa burutuko da Udaben eta ekainaren 14tik 16ra monoziklo txapelketa.

Bukatzeko azaltzen du, kontutan hartuta Kirol Batzordeak polikiroldegia erabiltzen duela hainbat proba burutzeko eta bertan duxatzen dira partehartzaileak eta beste... horregatik batzordeak erabaki du udalari proba bakoitzeko parte hartzaile bakoitzeko euro bat ordaintzea eta bizikleta bakoitza garbitzeagatik 0.50 euro, proba burutzen den aldiro. Bildutakoek ados daude batzordearen erabakiarekin eta hala islatuko da urtero onartzen den tasen zerrendan.

Gizarte Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Sasturain etxea berritzeko proiektua idaztea esleitu da Amma Architectura elkarteari. Beraiek aurkeztutako planoetan aldaketa txiki batzuk egitea eskatu zaie eta orain hilabeteko epea dute proiektu osoa egiteko.

Hirigintza Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Bukatu dira bilera parte hartzaileak udal plana berritzeko, eta bertan jaso direnak plana egiten ari den arkitektoari eman zaizkio, behin behineko dokumentuan txertatu ahal izateko batzarrak onartzeko.

Berezitasun bezala, plan zaharrean jasota ez zegoena da, alde batetik pertsianak jartzeko aukera iluntze sistema bezala zenbait eraikinetan edo planta bakarreko etxeak egikaritzea hirigune tradizionaletik kanpo.

Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Kontzejuak basaburua.eus emaila izango dute haien komunikazioetarako. Informazioa eman zitzaien 2026-2028 PIL programarako eskaerak 2025eko lehen hiru hilabeteetan egin behar direla. Kontzejuak Cederna Garalurren parte hartzeko entitate bezala aztertzen ari dira. NUFK entitatean elizaren inmatriculazioen prozesuak aztertzeko pertsona bat kontratatu da eta berari kontsultak egin ahal zaizkio.

8.- Informazio orokorra:

Polikiroldegian, eguzki plaken azpiegitura egiteko PDR laguntza ebatzi da eta 27.646,21 euroko laguntza onartu diote udalari.

Beste laguntza bat ere ebatzi dena da Gizarte Batzordeak eskatutakoa, Ongizate emozionaleko lerroan, Nahitaezko bakardadeari aurre egiteko proiekturako, 842 euro onartu dira.

9. Erreagu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:10ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.